



HERRIA ETA ESKOLA Elkarlana ezinbesteko

Hirigintza

Francesco Tonucciren *Haurren hiria*

Udala

Auzogune naturalean hezteko eskubidea

Euskara

Eskolatik kalera, aisialdia da giltza

Ikas komunitatea

Denen benetako parte-hartzean oinarritua



Eskola, burbuila izatetik herria eraldatzera

Haurren begietatik hiria birpentsatzeko beharra mahaigaineratu du Francesco Tonucci psikopedagogo italiarrak *Haurren hiria* liburuan. Etxetik eskolara haurra bakarrik eta oinez joatea askorentzat pentsaezina den garaiotan, beharrezkoa da umeen autonomia bultzatuko duen hirigintza. Haurrentzat proposatzen den hiriak guztientzat balio du, zaharrentzat, elbarrituentzat, etorkinentzat. Ikuspegi hau hezkuntza eragileen artean zabaltzen ari denez, herriaren eta eskolaren arteko elkarlanaren beharra lau arlotatik aztertu dugu. Euskarara itzuli berri duten *Haurren hiria* liburuaren aurrerapena ekarri dugu batetik. Bestetik, hurrek eskolan arrakasta izan dezaten, herri osoaren inplikazioa nola gauzatu azaldu digu Maria Luisa Jaussi Ikas komunitate eskola eredu adituak. Euskararen arloan, eskolak bermatzen duen ezagutzari erabilerak jarrai diezaion herrian aisialdi ekintzak sustatzen dituen Txatxilipurdi elkarteko Eneko Barberena eta Aizpea Otxandianok Arrasateko esperientzia kontatu digute. Azkenik, udalaren ikuspegitik umeak bere herrian bizimodua egiteko eskolak duen garrantzia aldarrikatu dute Pierre Pinque Barkoxeko hautetsiak eta Naiara Sampedro Donostiako Hezkuntza zinegotziak.

■ **Testuak: Estitxu Eizagirre Kerejeta eta Mikel Garcia Idiakez**

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Azaleko argazkia:** Jagoba Manterola, Argazki Press · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.366. zenbakiarekin banatua, 2013ko apirilaren 28an)



Francesco Tonucci

Psikopedagogo

«Proiektuak helburu itxuraz txikia du: haurrek etxetik bakarrik irteteko aukera izan dezatela»

Francesco Tonucci psikopedagogo, pentsalari eta marrazkilaria italiarrak haurren neurria egindako hiria aldarrikatzen du, haurrak eskoletan eta ludoteketan sartuta izan beharrean kalean eroso egon daitezzen. Tonucciren *Haurren Hiria. Hiria pentsatzeko beste modu bat* euskaratu du Mainer Elkoro Gabilondok (eta Ester Zarraua Isasi-Isasmendik zuzendu); hona hemen pasarte batzuk.

Hona proposamena: hiritar arrunt heldu, gizonezko eta langilea haurrarekin ordezkatea. Ez datza ekimenak prestatzean, ezta aukerak eskaintzean edo haurrentzat egitura gehiago sortzean, ezta gizarteko talde ahul baten eskubideak defendatzean ere. (...) Administrazioaren eginbeharra, ordea, begirada haurren parera jaitea izan beharko litzateke. Haurrak berezko duen aniztasuna onartzean dago gakoa, honek aniztasun guztien bermea baitakar. (...) Ustea da hiria haurrentzat egokiagoa bilakatzen denean, guztiontzat egokiagoa bilakatuko dela. *Haurren hiria* 1991. urtean Fanoko udalerrian hasitako esperientzia batetik sortzen den proposamen zehatza da, gaur egun, hainbat udalerrri italiar eta atzerriarren interes eta atxikimendua jaso duena. (...)

Lehenik egin beharrekoa eta garrantzitsuenak den aukera, haurrei protagonistaren papera ematea da, beraiei ematea hitza, beraien iritziak partekatzeko aukerak eskaintzea eta guk nagusiok,

entzulearen jarrera hartzea, ulertzeko gogoz eta haurrek esaten dutena kontuan hartzeko borondatez. Zer esanik ez, haurrentzat proposatzen den horrek hiritar guztiontzat balio du, zaharrentzat, elbarrituentzat, etorkinentzat. Hona berriz, haurra guztiontzat “bide zabaltzaile” eta bermea bezala. Ezin ditu inork haurrak ordezkatu, beraiei galdetzeaz, tartean sartzeaz edo entzuteaz arduratu gabe. Haurrei hitza ematearekin, ez diegu guk sortutako hiriko arazoak beraiek konpon ditzaten eskatzen, beraien ideiak eta proposamenak kontuan hartzen ikasten dugu, ordea. (...)

Estereotipoen askatuz eta sormenari haize emanez, haurrek aurrez aurre jartzen dituzte errealitatea, beraien beharrak, nahiak eta balizko irtenbideak. (...) Hau guztia posible izan dadin, haurrekin lan egiteko gai diren langile berriak hezi behar ditugu. (...) Haurrek hiriaren proiektuan parte hartzeko aukera baldin badaukate,

seguru egon gaitezke, bai gaur eta bai bihar nagusi direnean, hiria beraiena sentituko dutela, zaindu eta defendatu beharreko hiria, guztiok gure etxearekin sentitzen dugun moduan. (...)

Proiektuak helburu zehatz eta itxuraz txiki eta arrunt bat ezartzen dio bere buruari: Haurrek etxetik bakarrik irteteko aukera izan dezatela. (...) Gure haurrak gaur egun hazten diren modua guztiz ezezaguna, berria da, gure haurtzarorekin alderaezina. Ez dira modu berriak auzokidetzak, elkartasun eta segurtasun zentzua galdu direlako, harreman sozialak oso konplexuak bihurtu direlako eta distantziak handitu direlako baizik. Elkar ezagutzea zaila da, solairu altuetako apartamentuetatik jaiste zaila da, kalea zeharkatzea arriskutsua da, eta abar. Hiria, dena dela, aberatsagoa, artikulatuagoa eta nahi bada, lilurgarriagoa ere bihurtu da. Bestalde, etxetik irtetea, kaleetan bakarrik ibiltzea eta bere ingurua ezagutzea exigentzia garrantzitsua da haurraren hazkunde sozial eta kognitiborako. Oinez ibiltzea, paseatzea, helduontzako plazera da, noizean behin geure buruari egiten diogun oparia, baina haurrentzat beharrezkoa da. Gure mugimenduak gero eta gehiago lekualdaketak dira, puntu batek besterako igarobideak, helburu bat xede dutenak eta funtzio bati guztiz lotuta daudenak. Ardura hauek buruan, axolagabeki gabiltza eta ahalik eta denbora gutxienean gure helmugara iristen saiatzen gara. Haurrek modu oso bestelakoan jokatzeko dute. Haurrentzat leku batetik bestera joatea, oraineko momentuen segida bat da, momentu oro da berez garrantzitsua, geraldian, mirari edo kontaktu bat izateko duin. Orduan, denborak luzatu egiten dira, haurren poltsikoak harri, hosto eta paperez betetzen dira eta burua irudi, galdera eta aurkikuntza berriez. Eta guztia bateratzen da, ederra, berria, orokorra eta berezia dena. Honek askotan sortzen ditu nagusiekiko gaizki-ulertuak eta “ez zaitez aldiro gelditu!” edo “ezazu denborarik galdu!” bezalako tontakeriak esaten dituzte, galdutako denborari esker bihurtzen dela norbanakoa handi konturatu gabe. Haurrek irteteko daukaten aukera eta auto-

nomia gurearekiko alderantziz proportzionala da: helduok zenbat eta gehiago mugitzen garen kotxez, are eta gure mugimendu eremua gehiago zabaltzen dugu, arrisku gehiago sortzen ditugu, espazioak oztopatu eta airea kutsatzen dugu, gure haurren autonomia-zailtasunak handituz. Haurrak mugitzen direnean, gero eta maizago gurekin mugitzen dira, gure kotxean, atzeko jarlekuan. Modu honetan, haurrak ez du hiria ikusten, ez ditu bere ezaugarriak bereizten, agudo pasatzen da, ezinezkoa zaio orainaren, jakinminaren eta geraldien etengabeko beharrei erantzutea. Mugitzeko modu arraro honetan ez du ezer finkatzen, ez du bere espazioa antolatzerik lortzen, ezin du bere hiria eraiki. (...)

Egun haurren denbora librea desagertu egin da. Etxeko atetik kanpo dauden arrisku ugariak haurrak etxetik bakarrik irten ez daitezen aholkatzen dute eta egoera ekonomiko onenek arratsaldetako hainbat eskolatan izena emateko bermea ematen dute: igerilekua, gitarra eskolak, ingelesa, dantza, gimnasioa. (...) Garrantzitsua da, haurra txikia denetik bakarrik irten ahal izatea, etxeko segurtasuna uzteko arrisku eta plazerak bere gain hartzea. Kalera jaitsi, lagun bat bilatu, jokoa eta arauak adostu eta ondoren jolastu, edo natura aztertuz, objektuei begiratu, helduen jarreraren inguruan kontuak atera; beraien indarren pareko arriskuak hartu eta oztopoak gaindituz, gatazkei aurre egin eta konponduz; etxera nekatuta bueltatzea, beharbada zikin-zikin, asaldatuta, gurasoek jakin ezin ditzaketen kontuak kontatzeko irrikaz. Haurrek hiruzpalau urtetik aurrera bizi behar zuketuen esperientzia hau, eta edonondik begiratzen diogula ere, bere konplexutasunak ihesik egin ezin digun bizipen honi, gaur egun, mutilak hamar urtetik aurrera ekingo dio eta neskek, beharbada, beranduago, garapen kognitibo eta sozialaren aroa aspaldi burutu denean. Zein ondorio izango ditu berandutze honek haurraren? (...)

Hiriaren osasuna edo degradazioa neurtzeko ingurumen-adierazle sentikorra izan daiteke hau-

rra: jolasten duten haurrak, paseoan dabiltzanak eta bakarrik dabiltzan haurrak baldin badaude hirian, hiria osasuntsua denaren seinale da. Hirian ez bada haurrik ikusten, hiria gaixotua dagoen seinale, ordea. Haurrak kalean dabiltzan hiria, hiri segurua da, ez haurrentzat bakarrik, zaharrentzat, elbarrituentzat eta hiritar guztientzat baizik. (...) Baina haurrentzat etxetik bakarrik irteteko aukera egon dadin, hiria aldatu beharra dago, guztiz, apurka-apurka bada ere. Defentsaren hautuan modu basatian garatu den hiriak, hautu aldizkakoak egiteko gai izan behar du, bizitzari eta etorkizunari ateak zabaltzeko gai. Horrenbestez, maila anitzetan eta norabide anitzetan lan egin beharra dago. (...)

Lasaitasunez oinez ibili ahal izatea eta espazio publikoak erabili ahal izatea hiritar guztion eskubideak dira. Guztioi askatasunez oinez mugitzeko aukera itzultzea administrazioaren lehentasunezko betebeharra da eta hiriaren etorkizuna prestatzeko modu zuzen eta serioa. Autoen boterea, oinezkoena hasten den tokian bukatuko den etorkizuna, hiria garbiagoa eta gutxiago “okupatua” izango duen etorkizuna, mugitzea posible izango den hiria, elkartu eta elkarrekin egon daitekeen hiria, hau da, hobeto bizi daitekeen hiria, haurra bere lagunekin bakarrik irten ahal izango den hiria. Beraz, plaza berehala bueltatu behar zaie hiritarrei eta gero saiatuko gara, aukera dagoen neurrian, aparkalekuen arazoa konpontzen. (...)

Helduei ulertarazi behar zaie, guraso ona ez dela, haurrek guztia izan dezaten edo toki guztietara lagunduak izan daitezen bere bizitza alde batera uzten duena. “Guraso onaren” ezaugarri nagusia, egunak pasa ahala, haurrak gurasoaren gero eta premia gutxiago izatea izan beharko litzateke. (...)



Garai batean, hamarkada gutxi batzuk direla, haurrak guztienak ziren. Kontrol sozial funtzio handia betetzen zuten auzotarrek. Etxetik kanpo jolasean ari zen haur batek zerbaiten beharrik izaten zuenean, auzotarren ikusmina eta arreta eta kezka aurkitzen zituen. (...) Haurrarekiko erantzukizun sozialaren barneratze irizpideak haurra ezagutu edo bere bizilagun izatetik harago zihoazen: etxetik kanpo bakarrik zebilen haurra, topatzen zituen heldu guztiek kontrolatzen zuten. Auzokideak baino, “haurraren lagunak” zirela esan genezake. (...) Badirudi, elkartasun sozial hori desagertu dela.

Defentsaren hautuak besteekiko interesa desagerrarazi du edo ezkutatu, edo mozorrotu egin du, behintzat. (...) Derrigorra da beraz, lehenbailehen hauren aliatu berriak identifikatu eta heztea. (...) Haurrari berari erakutsi behar diogu heldu oro beraren lagun bat izan daitekeela. Gomendio terroristak ere alde batera utzi beharko ditugu: “Ez zaitetz inorekin gelditu”. (...)

Eskolak, gurasoekin batera eta lehen hezkuntzatik hasita, haurrak eskolara bakarrik joatea bultzatu beharko luke, oinez joan daitezela, eskolakide nagusiagoekin adostuta, autonomia pixka bat biziz eta oinezko moduan beraien eskubide eta betebeharez jabetuz. Esperientzia honen inguruan eztabaidatu daiteke eta ekintzak antolatu. Ibilbide desberdinak egiaztatzeko azterketak egin daitezke, arrisku handieneko ibilbideak identifikatu eta elkarrekin, arrisku hauek saihesteko irtenbide onenak bilatzeko. (...)

Hiria birpentsatzea, beste modu batekoa izatea desiatzea, guztion neurrikoa izatea, behar larria da (...) hiri arinagoan, xumeagoan pentsatu behar dugu, hiritar guztiek pisu handiagoa izango duten hirian. ■





Maria Luisa Jaussi

Ikas Komunitateak,
Txurdinagako
Berritzegunea

«Ikasleen partaidetza bultzatzen duen edozein ekintza egiten ari zarenean, herria eskolan sartzen da, berez»

Hobeto ikasten dela frogatuta dagoelako antolatzen dira ikas komunitateak (eredu horretako 33 ikastetxe daude EAEn eta 2 Nafarroan) herriko elkarte eta eragileen parte-hartzean oinarrituta. Baina parte-hartzeak benetakoa izan behar du. Elkarlan honek herri osoaren eraldaketa ekarri duen adibidea ere eman digu Maria Luisa Jaussik.

Zergatik da garrantzitsua ikaskuntzarako, herria eta eskolaren arteko elkarlana?

Gaur egun errealitatea oso konplexua da. Ezin da pentsatu ikasleen garapena eskolan bakarrik lortzen denik. Familian, auzoan, herrian garatzen da. Prozesu arrakastatsua lortu nahi badugu, inguru guztiak lotuta egon behar du, eskolako lanak jarraipena izan behar du familian eta herrian. Horregatik, ikas komunitateen proiektuan guztien partaidetza bultzatzen dugu: familiena, elkarreana, udalena... Guztiok batera indarrak lorpenetan ipintzeko.

Jendeak dena eskolari delegatzen dio ala aukera ematean parte hartzen du?

Gai konplexua da. Alde batetik, eskoletan ez daukagu parte-hartze zabalerako ohiturarik. Horregatik, nahiz eta proposamena hori izan, leku askotan

gauzatzea zaila da. Nahi gabe, irakasleek eurek bakarrik ulertzen duten hizkera erabil dezakete eta gurasoek ez dute zentzurik ikusten... Orain arteko jarrerak aldatzea kosta egiten da. Gurasoei ere kostatzen zaie eraginkortasuna eta benetan parte hartzeko aukera dutela sinestea. Eta batzuetan uste dute ez dutela gaitasunik, edo ez dira ohar-tzen gaiak badakitenik. Martxan jartzeko prozesu konplexua da. Baina pixkanaka lortzen da eta partaidetza benetakoa bada eta partaideek ikusten badute euren proposamenak kontuan hartzen direla eta erabakiak hartzen dituztela, parte-hartzea hobetuz joaten da.

Zertan gauzatzen da herriaren eta eskolaren arteko elkarlan hori?

Gure eskola ereduan, komunitate osoak, alegia parte hartzen duten guztien artean, erabakitzen dute zein diren eskolaren lehentasunak eta horiek

aurrera eramateko batzorde mistoak antolatzen dira. Batzorde mistoetan parte hartzen dute ikasleek, irakasleek, gurasoek eta herriko eragileek. Gai askotan udaleko norbaitek edo elkarteren bateko norbaitek. Denen artean jartzen dituzte ahaleginak helburuak lortzeko. Beraz, ikas komunitateetan erakundea bera herriko eragileen partaidetzarekin dago antolatua.

Partaidetza hori zabalagoa bada, eskolak eragin handiagoa izango du herrian. Baina eskola barruan partaidetza bultzatzen denean, hor eraikitzen diren harremanak herriko beste esparruetara zabaltzen dira.

Nola bermatzen da benetako parte-hartzea?

Berdintasunezko elkarriketa da benetako parte-hartzearen oinarria. Ikas komunitateetan erabakiak denon artean hartzen dira, baina argudioen arabera. Ez pertsonaren arabera. Ikastetxeko zuzendaria izateagatik ez dauka argudio gehiago. Kultura hori zabaldu egin behar da, eginez lortzen da, ez lehenengo unetik.

Benetako parte hartzea praktikan bideratzen zaila da baina jendeak desberdintzen du noiz egiten den hori aurrera eramateko ahalegina. Guraso batek kontatzen zuen funtzionamendu hau ezagutu baino lehen, eskola kontseilura kontrolatzera joaten zirela: “Irakasle bat beti berandu heltzen da, eta matematiketan herren dabilta”... Eurek ere parte hartzen zutela ikusi zutenean, jabetu ziren ardurak denonak direla, eta euren jarrera aldatu zen, arazo bat dagoenean ea denon artean nola konpondu pentsatzen jarri baitziren. Eta bakoitzak bere lekutik zer ekarpen egin dezakeen pentsatzen. Hori denontzat da zaila, baina landu egiten da.

Bestalde, argudioen arabera erabakitzeak esan nahi du, ez duela balio norberari bururatutakoak, hori arrakastatsua dela frogatuta egon behar du. Bai eskola barruan eta bai herri mailan egin behar diren aldaketak ebidentzietan oinarritu behar dira.

Non dago frogatuta proposamen hori ongi doala? Irizpide hori zabaldu behar da, eskola barruan eta eskolatik kanpo.

Badago esperientzia bat Albaceten [Gaztela-Mantxa, Espainia], eta bertan ebidentzia zientifikotan oinarritutako esperientziak ari dira aurrera eramaten herrian eta eskolan. Gurasoen parte-hartzea bultzatzen dute eskolan, asteburutan aisialdirako eskaintza sortu dute, enplegua, etxebizitza... Mondragon Kooperatibaren esperientzia arrakastatsutzat hartu dute eta hara eraman dute euren adibidea. Eraldaketa handia egiten ari dira, elkarlanean.

Herrian lehendik dauden harremanak txarrak direnean zer lan egiten du eskolak?

Euren arteko harremana errazten du. Eskolan elkarriketen arreta-gunea umeen arrakasta da. Proiektu honetan iritzi desberdin guztiak onartzen dira, baina denon adostasunean oinarritzen da. Gauza batzuetan denok gaude ados, eta elkarriketa hor oinarritzen da, ez gure diferentzietan. Bat euskararen alde egon daiteke eta bestea ez, baina umeen arrakastarako beharrezkoa da? Bada nola landuko dugu?

Noski, horretarako prest egon behar gara. Batzuetan diferentziak mugatzen du parte-hartzea (alegia, batzuek parte hartzeari uko egiten diote) eta eskolak horren eragina jasotzen du.

Krisiak elkarlana bultzatu du?

Orain guraso gehiagok du denbora gehiago parte hartzeko. Espainiako Estatuan ikas komunitate batzuk egoera txarrean dauden familientzako laguntzak bultzatzen ari dira alokairurako eta abar. Aukera hor daukagu, baina EAEn oraindik ez dugu ezer martxan jarri.

Helduen formakuntza bultzatzen duzue, eraldaketarako tresna garrantzitsua baita. Baina lantzen duzuen ez da haurrak nola hezi.

Horretarako ere eskolak eta udalak dituzten zerbitzuak bateratzen baditugu baliabide gehiago lortzen dira. Batez ere ikaskuntza instrumentala garatzen da: Oinarrizko titulua duenak hurrengo lortu dezan, matematika, hizkuntza... Pertsonak bere formaziorako behar duena, lan aukera gehiago izateko. Ikusi baita hori dela umeen eskola arrakastan eragin handiena duena.

Ikerketek ondorioztatu dute ikasleen arrakastak lotura duela gurasoen ikasketa mailarekin. Baina sakonago aztertuta, ikusten da gurasoen ikasketa mailarekin baino gehiago dagoela lotua formakuntzan parte hartzearekin. Formakuntzan parte hartzeak eragina du zure seme eta alabengan, nahiz eta ez loturarik izan eurak ikasten ari direnarekin. Jarrera bat ikusten du, irakurtzen dela, ikasten dela... Giro akademiko bat sortzen da etxean. Baina normalean nork hartzen du parte horrelako formakuntzetan? Lehendik maila bat daukanak. Ikasketa maila baxua dutenak normalean ez dira animatzen. Denen parte-hartzea bultzatu behar dugu ume guztientzako giro akademikoa lortu nahi badugu.

Herria eta eskolarekin elkarlana ez da erraza hezkuntza publikoan irakasleen mugikortasuna hain handia denean.

Aldaketa beti oztopo da horrelako harremanak eta proiektuak aurrera eramateko. Baina eskolak egiturak sortzen baditu, horrek emango dio egonkortasuna proiektuari. Esaterako, orain Lea-Artibaiko haur-eskolako proiektua lantzen ari gara, eta arazoa da bai hezitzaileak eta bai gurasoak asko aldatzen direla, soilik bi urtez egoten baitira umeak haur-eskolan. Baina finkotasuna proiektuak eta egiturak ematen dute, batzordeek eta abar.

Gauzak ez dira hainbeste aldatzen, guk lehentasun batzuk jartzen baditugu, horiek lortzean beste batzuk jarriko dira, eta guk ez baditugu lortu hurrengoak saiaturiko dira horiek lortzen.

Herriko gaiak eta errealitatea eskolan ikasgai dira? Curriculumak ematen du horretarako aukerarik?

Ikastetxe bakoitzak erabakitzen du zer eta nola landu. Partaidetza handia denean, berez sortzen da. Eskola tradizionalan, irakasleak liburutik azaltzen duenean, liburuan ez bada herria agertzen ez da deus azaltzen. Baina taldeka lan egiten denean, edo liburu tertuliak egiten direnean, ikasleen partaidetza bultzatzen duen edozein ekintza egiten ari zarenean, herria eskolan sartzen da, berez. Edozein gai azaltzen denean, ikasleek euren esperientzia hartzen dute erreferentziatzat, beren herriko errealitatea, eta denetik hitz egiten da. Edo gurasoek parte hartzen dutenean eta euren esperientzia kontatzen dutenean... Teoria praktikarekin elkartzen da horrela, eta abstrakzioa norberaren kulturarekin. Hori oso ongi ikusten da tertulia literarioekin. Eraldaketa lortzen da norberaren esperientzia testuarekin lotzen denean. Eskolako parte-hartzea zabaltzen duzunean berez gertatzen da: nekazaritza lantzen ari bazara, guraso bat etortzen da eta bere baserrira gonbidatzen du gela, edo ikasle batek proposatuko du bisita egitera joatea...

Egungo eskolak eragile aktiboak dira herrian ala burbuila?

Herriak eta herriak daude. Herriak aukera ematen badu, bai. Hau da, parte-hartzea bultzatzeko egiturak baldin baditu, bai. Hirietan zailagoa da, auzo mailan egiten da. Gertutik ezagutu nuen San Antonio de Txabarri ikas komunitatea, eta bertako elkarbizitza batzordean apaiza eta guzti elkartzen ziren! Auzo mailan oso antolatuta zeuden, asteburutan egiten zena ere lotuta zegoen... Hurbiltasun handia zegoen. Lekeition esaterako eskolatik oso hurbil dago EHNE nekazaritza sindikatua, eta beste hainbat elkarte ere bai eta ondorioz eskolan lehentasun bihurtzen da elikadura lantzea, inguruko baserrietako produktuak erosten saiatzen dira... ■



HERRI HEZITZAILEA, ESKOLA HERRITARRA JARDUNALDIAK

Hik Hasi hezkuntza elkarteak antolatuta, “Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldiak egingo dira maiatzaren 10 eta 11n, Donostiako Kursaal jauregian.

EGITARAUA

Maiatzaren 10ean: Heziketa ardatz duen HERRIA

Goizez eta arratsaldez
(9:00-13:30 eta 15:30-17:30)

- Umeen parte hartzea: Euskal Herritik begirada bat. **Lorea Agirre** MUko *Sorguneak*.
- Haurren hiria: **Francesco Tonucci**, Haurren hiria proiektuaren sortzailea.
- Herrietako esperientziak:
 - **Ordizia** “Herri Hezitzailea” lantzen.
 - “Irrien Lagunak” **Oarsoaldean**.
 - Haurtzaroaren lurraldeak: **Alfredo Hoyuelos** NUPeko irakaslea eta **Txusma** Lizarrako Arieta Haur Eskolako zuzendaria.
 - “Berramesten egitasmoa” eta “Plaza berreskuratzen” Arrasaten: **Txatxilipurdi** aisialdi eta euskara elkarte eta **Etxegorri** elkarte.
 - **Herrigune Leioa**. Ikas-komunitatea eta heziketaren erantzukizuna: Piter Blanco eta Eukene Fernandez (*Solasgune*).

Maiatzaren 11n: Herrira begiraten duen ESKOLA Goizez (9:00-14:00)

- Lurralde antolamenduak duen garrantzia heziketan: **Koldo Telleria** EHUKo irakaslea (*Hiria* kolektiboa).
- Guztientzako eskola: **Francesco Tonucci** pedagogo italiarra.
- Hainbat eskolako esperientziak:
 - **Antzuolako** herri eskola.
 - **Ikastola berriak sortzen**. Hur Gorostiaga SEASKAko zuzendaria.
 - **Eskola txikiak**: Zizurkil, Olaberria eta Zeraingo eskola komunitateetako kideak: ikasleak, irakasleak, gurasoak, udal ordezkariak...
 - Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen: **Dimako eskola** eta Donostiako **Aitor ikastola** (Sortzen-Ikasbatuaz).


Jardunaldi hauen harira, *Haurren Hiria*. *Hiria pentsatzeko beste modu bat* liburua euskarara itzuli da. Txatxilipurdi Arrasateko aisialdi elkarte izan da euskaratzearen bultzatzailea. Aisialdiko begiraleek ia gida-liburu gisa erabili izan dute Tonucciren *Cittá dei bambini* liburua, eta lan tresna oso baliagarria eta irakurterraza izanik, euskarara ekartzea erabaki dute. Maider Elkoro bergararrak egin du itzulpena.

Aisialdi hezitzaileaz gain, haurren parte hartzea sustatzeko dinamizazio lanak egiten ditugu



txatxilipurdi

info gehiago: www.txatxilipurdi.com | idazkaritza@txatxilipurdi.com



**Aizpea Otxandiano
eta Eneko Barberena**

Txatxilipurdi elkarteko kideak

«Irakasleen eskaerari erantzuteko sortu ziren udalekuak»

Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi elkartea Arrasate Euskaldundu Dezagun euskara elkartetik sortu zen. Ludoteka, Gazte Txoko, Udaleku eta gainerako ekintzen 0-18 urte arteko ehunka haur eta gazterekin lan egiten dute urte osoan. Euskara espazio itxietatik kalera ateratzea dute orain erronka, eskolan egiten den lanak herriko egunerokotasunean jarraipena izan dezan.

**Zer garrantzia du herria eta eskola elkarlanean ari-
tzeak euskara erabilera bultzatzeko?**

ENEKO BARBERENA. Arrue ikerketa aurkeztu da duela gutxi, eta bertako ondorioetako bat da eskola kasu askotan irla soziolinguistikoa dela. Eta beste hainbat baloretan ere irla da, hezkidetzan eta abar. Irla bat baldin bada eta kalean beste norabide batean baldin badoa euskararen egoera, eskola oso tresna ahalsua da, baina berak bakarrik ezin du euskaldundu. Kalean dauden euskalgintzako eragileak eta eskola harremanetan jarri behar ditugu, norabide batzuetan elkarrekin lan egiteko, edo bestela irla izaten jarraituko du. Gainera umeek, adinean gora doazen heinean, kontraesan hau antzematen dute, Arrue ikerketan ikusi den bezala: espazio gidatuetan eta hezitzailea gainean dagoenean erabilera bat da, eta euren artean dabilzanean beste bat.

AIZPEA OTXANDIANO. Ume askok euskara eremu zehatz batzuekin lotzen dute. Eragile ezberdinok elkarlanean erabilera kalera, auzoetara,

herrira zabaldu genezake, egunerokotasuneko esparru ahalik eta zabalenean euskararen erabilera bultzatzeko.

Elkarlan hori zer da praktikan?

E. BARBERENA. Herrian konfiantza dagoenean, hainbat elkarlan sortzen dira. Adibidez, batxilergoko irakasleek ikusi dutenean ikasle talde indartsu bat dagoela, euskaldunak eta eragileak direnak, esan izan digute: “Egin jarraipena gazte hauei, ze gu eskolan konturatu gara gazte hauek badutela ekintzailetasuna, grina... Aisialdirako begirale izateko egokiak izan daitezke”. Eta alderantziz, gu euskara elkartean ohartu gaitzezke eskolan lantzea merezi duten zer gai edo alor ikusten ditugun gazteengan. Herrietan harremanetzeko gune naturalak egoten dira. Batzuk irakasleen seme garelako, beste batzuk euskara elkarteko bazkide direlako, euskara elkarteko bazkideen seme-alabak eskolan lanean dabiltzalako... Egunerokoan mila harreman sare daude, zaindu beharrekoak.

Arrasaten 90eko hamarkadan, irakasleek euskara elkarteari eskatu zioten irailean udalekuak egiteko, ume askok udan euskara hitz egiteko trebetasuna galtzen baitzuten. Geroztik urtetan antolatu ziren. Natural egin zuten Arrasate Euskaldun Dezagun elkartera joan eta euren beharra agertzea.

A. OTXANDIANO. Arrasateko uztaileko udalekuak ere irakasleek eskatuta sortu ziren, neurri batean. Etxean euskara jasotzen ez zuten ikasleek erraztasuna galtzen baitzuten bi hilabete eta erdian.

E. BARBERENA. Horretarako garrantzitsua da irakasleek herria ezagutzea, jakin dezaten zer antolakuntza sare dauden herrian, behar izanez gero nor lagundu ditzakeen jakiteko. Kanpotik eta bolada motzerako datorren irakasleak zaila izango du.

Arrasateko Udalaren bueltan Transmisio Mahaia sortu da. Nortzuk eta zertarako elkartu zarete?

E. BARBERENA. Hamairu-hamalau eragile biltzen gara, eta abenduan izenpetu genuen hitzarmena: helduen alfabetatzeaz arduratzen direnak, herri eskola eta ikastola, eta euskarazko aisialdia lantzen dugunak. Helburua da transmisioaren gaia faktore ezberdinetatik lantzea: eskolan lantzen denak jarraipena izan dezan aisialdian, eta alfabetatzen ari diren guraso eta ikasleekin hori dena osatu dadin.

A. OTXANDIANO. Lehen lana izan da herri mailako hutsuneak ikustea. Transmisioa emateko zer behar ikusten genituen definitzea. Eta bateratzea ikastetxeetako errealitatea, helduak alfabetatzeko errealitatea, eta Txatxilipurdikoona. Bakoi-tzak bere ikuspegitik, baina bat egin dugu errealitatearen irakurketarekin, eta ikusi dugu zer-bait egin beharra dagoela. Eta elkarrekin egiten badugu eraginkorragoa izango dela. Ikastetxeetakoak arduratuta zeuden, esaten zuten “duela urte batzuk pasilloetan irakaslea pasatzen zenean lotsa-

gatik euskaraz egiten zuten ikasleek. Gaur egun hori ere ez, euskara klase barrura mugatu da”.

E. BARBERENA. Begira zer motibo ahula zegoen oinarrian, lotsa da euskaraz eginarazten ziguna?

A. OTXANDIANO. Ez dakit lotsa edo errespetua zen, baina bai aldatzen zela hizkuntzaz irakaslearen autoritatearen aurrean. Eta gaur egun hori ez da ematen. Gela barrura mugatzen da, eta ikasle batzuek irakasleari ere ez diote euskaraz egiten.

E. BARBERENA. Arrasaten urteak dira dena D eredua dela. Noraino euskaldundu dira erdaldu-nak eta erdaldundu euskaldunak? Hizkuntza gaitasunarekin ere oso lotuta dago gaia, irakaslearen aurrean euskaraz argumentatzeko behar bada ez dute gaitasunik. Hori guraso askori ere gertatzen zaie, euren burua euskalduntzat duten arren. Haur batekin gai dira, baina nekez ikusten ditut euskaraz argudiatzen nerabe batekin zer ordutan etxeratu behar diren. Eta euren burua euskalduntzat dute, sekula ez lirateke alfabetatzera joango.

Eremuak galdu dira eta kaleko erreflexua gailendu da. Hizkuntza mailan kalea sartu da eskolan. Gure zalantza da ea gaurko gurasoek lehengo mentalitate dute, alegia, “gu erdaldu-nak gara baina saiatuko gara gure seme eta alabak euskalduntzen”. Zure gaitasun ezaren kontzientzia baduzu, sekulako ahalegina jartzen duzu ondorengoak euskalduntzen. Baina bere burua euskalduntzat duten guraso asko transmititzeko eta zer transmititzeko gai diren ikusi beharko litzateke. Ordea, planteatzeko ere oso gai delikatua da.

A. OTXANDIANO. Transmisio Mahaian diagnostiko hori guztia mahai gainean jarri, eta hiru helburu finkatu ditugu: ikastetxeetan gazte eta haurrekin zer lanketa egin dezakegun ikustea, bestalde AEK eta udal euskaltegiaren inguruan gurasoekin batera transmisioa bultzatzeko zer egin dezakegun ikustea, eta azkenik herri mailako transmisio kanpaina egitea, helduak kontzientziatzeko nolako eragina duten euren ondorengoengan.

Aisialdiak lan handia egiten du eskolaz kanpo euskararen erabilera bultzatuz. Bestalde, aisialdi eskaintza zabal horrek ez al du haurren denbora erabat librea murriztea ekarri, haurra etengabe tutoreen begiradapean jarriz?

A. OTXANDIANO. Gakoa da aisialdi talde horrek bere ekintzak aurrera nola eramaten dituen. Hezitzaileak egunero berak nahi dituen ekintzak antolatzen baditu, umeentzat oso gidatutako jarduerak dira eta haurra eskolatik atera eta beste ordu pare batez beste eskola moduko batera darama. Hori egin beharrean umeekin adosten bada zer nahi duten eta zer ez, eurekin batera sortzen badituz ekintzak eta gainera hori guztia euskaraz egiten laguntzen badiozu, haurra edo gaztea gustura sentituko da, eta euskaraz.

E. BARBERENA. Aisialdiak zituen erreminta batzuk azken urteetan eskolak bere egin ditu, eta hori positiboa da. Eskola ez da guk umetan ezagutu genuen bezalakoa, Arrasaten herri eskolan gelak txokoka antolatuta daude eta umeak aukera dezake goizez zer jarduera egin nahi duen, hasierako urteetan behintzat. Ikastolan ere Rafael Cristobalen proiektuaren harira espazioaren hausnarketa egin dute. Hori zen garai bateko aisialdiaren bandera, askatasuna, gozamina... Eskolak bere egin ditu eta testuliburuetatik apartatu da. Horrek eraman du aisialdia bere buruari galdetzeraz: zein da gure funtzioa? Noraino ari gara guk nahi dugun aisialdia eskaintzen eta noraino haurrek nahi dutena? Bizpahiru urteotan geure burua zalantzan jartzen ari gara ia astero. Gure galdera da nola egin ludoteka koloretako kartzela izan ez dadin, jakinda Euskal Herriko klimarekin une askotan espazio itxiak beharrezkoak direla. Eta umeak espazio itxi eta hesietara bideratu ditugunez, hortik nola atera. Gure helburua auzo osoa jolas espazio bihurtzea da. Horrekin zeharka lortu nahi duguna da lehen eremu itxi batekin lotzen hizkuntza erabilera auzo oso bateko hizkuntza erabilerarekin lotzea. Lortzen ari gara umeak ludotekara joan aurretik plazan geratzea jolasten.

Ea gai garen plazako jolas hori euskaraz izan dadin. Ez dezatela euskara espazio jakin batzuekin bakarrik lotu.

Eskolan irakasleak eta aisialdian begiraleak, gazteek euskara transgresioarekin ere lotzen dute ala arauekin bakarrik?

E. BARBERENA. Luis Azpiatzuk transgresioari buruzko lana egin zuen eta Soziolinguistika Klusterreko Hausnartu saria irabazi. Nerabe askoren hizkuntza ohiturak eta musika aztertu zituen ikerketan, eta hori zen ondorioetako bat. Nerabezaroan, transgresioaren garaian zeren kontra errebeltatzen dira gazteak? Gurasoen eta eskolaren kontra, justu euskararen indargune direnak. Guztiz naturala da, nerabetasunaren transgresioaren barruan sartzen da hori. Arrasateko datuetan hori igartzen da, nerabezaroan utzi duten batzuk helduaroan itzultzen dira euskarara. Beste batzuk ez.

A. OTXANDIANO. Horren aurrean makilatxo magikorik ez dago. Herriko errealitatea eta gazte horien errealitatea zein den aztertu eta probak egin behar dira.

E. BARBERENA. Ez da samurra. Pilotalekura zoaz umeekin jolastera, eta palaz ari direnak gaztelaraz ari badira akabo! Semaforoekin gertatzen den bezalaxe da. Semaforo gorriaren aurrean umeak eta gurasoak geratzen dira eta gainerako jende dena korrika pasatzen da. Umeak zer pentsatzen du? “Heldua naizenean, ni ere pasako naiz”. Eta zer pentsatzen du gurasoak? “Ume txar hau ez baneuka eskutik helduta, zera egongo nintzen hemen ni zain!”. Hor besteok ari gara gurasoaren lana saboteatzen. Denok geldituko bagina, bide heziketa bestelakoa litzateke. Palaz ari direnak euskaraz ariko balira umeek jasoko lukete “kontxo, neska hauek euskaraz ari dira”. Eta zenbat adierazmolde jasoko lituzketen, irain, komentario... Aisialdi taldean txantxetan esaten dugu, Hollywoodekoen moduan estrak kontratatu behar ditugu! ■



«Auzogune naturalean hezteko eskubidea bermatu behar dugu instituzioetatik»

Handia da eskolak herriari eta herriak eskolari egiten dion ekarpena, baina herri txikietan beti ez da erraza ikastetxea bertan mantentzea, traba administratiboak tarteko. Udal batek bere herrian ikastetxea izateko duen interesaz eta erantzukizunaz mintzatzeko, eskola galtzeko arriskua duen Barkoxeko Herriko Etxera eta eskola txikien aldeko apustua egin duen Donostiako Udalera jo dugu.

Aurretik beste herri batzuetan gertatu moduan, Hendaiaiko Udalak bertako ikastolari dirua ematea debekatu nahi izan zuen duela hilabete gutxi Baionako suprefetak, Falloux Legea aitzakia hartuta. Aferak honakoa ere utzi zuen agerian: sarri ezinbestekoa dela udalen inplikazioa, herriko eskolak bizirauteko. Barkoxek 700 biztanle inguru ditu; antzina herriko hiru auzoetan eta erdialdean eskola bana zituen, baina egun herrigunekoa baino ez dago zutik. IkasBi eredia jarraitzen du eta herriko haur gehienak bertara doaz: 23 guztira. Gainontzekoak, 10 bat, Seaskak Sohütan duen ikastolan ari dira.

Pierre Pinque herriko hautetsiak azaldu digunez, desagertzeko arriskupean dago Barkoxeko eskola: “Arrangura handiak ditugu, haur saldoa oso txikia denez hemendik guttira, erran dezagun bost urteren buruan, eskola itxi daitekeelako. Frantziako Gobernamentua da irakasle postuak ezartzen dituen eta irakasle gabe utzi gaitzake”. Gero eta zaharragoa da Barkoxeko biztanleria, 2012an hiruzpalau haur sortu ziren eta herriko aurreikuspenen arabera, 2013an ez da haur-sortzerik izanen. Eta ume gutxi izatea, Estatuko administrazioaren erabaki markoan, arriskua da herriko eskola mantendu ahal izateko.

PINQUEK UTZIA



Barkoxek 700 biztanle inguru ditu; antzina herriko hiru auzoetan eta erdialdean eskola bana zituen, baina egun herrigunekoa baino ez dago zutik eta desagertzeko arriskupean dago. “Herri batek eskola behar du, eskolan daudelako haurrak eta haurrak dira herri baten geroa”, dio Pierre Pinquek.

Herrian eskola izatearen garrantziaz ez du zalantzarik Pierre Pinquek: “Herri batek eskola behar du, eskolan daudelako haurrak eta haurrak dira herri baten geroa, haur horiek izango dira herriko gazteak eta gazteria da herriaren odola, herria aurrera ateratzeko indarra egiten dutenak.



“Eskola txikiak eta ikastetxe publikoak Eusko Jaurlaritzaren eskumena dira EAEn, eta une honetan, Udalaren eskumena eraikinen mantenua da, baina diruz lagundu ditzakegu adibidez, eta hala egin dugu”, adierazi du Naiara Sampedrok.

bidez Xiberoaren nortasuna mantendu beharko dugu”. Horrek, gainera, beste ondorio bat ere ekarriko luke: xiberotar guraso anitzek beharko dutela beren haurrak harat honat autoetan mugitu, herri txiki ugariko eremu zabala baita Zuberoa. Mugikortasun aldetik, alegia, ez dela batere onuragarria eskola herritik ateratzea.

Herriaren bihotza da eskola”. Ez hori bakarrik, herriko ekonomia mantentzeko ere, beharrezkoa da haurrak bertan eskolatu eta etorkizuna Barkoxen bertan irudikatzea. “Herri txikia da Barkoxe, laborariak dira gehienak, baina laborari gazteen saldoa guttitzen ari da. Hemen ondoan, 20 kilometrotan, badira industriak, Maulen edo Oloronen, inguruko hirietan ari diren langileek hara eskolatzen dituzte haurrak, eta eskolarik gabe are gehiago guttutuko lirateke ondorengo belaunaldietan bertan geratzeko prest leudekeen laborariak. Zaila da laborantzatik bizitzea, lanak eta bizimoldeak erraztu beharko lirateke laborari lanari heltzeko eta haur saldoa herrian eta herriko eskolan mantentzeko. Garrantzitsua da baita ere, laborantzaz gain, dauden beste lan anitzetan aritzea gazteak, hori ona izango litzatekeelako haurrak herrian geratzeko”.

HAMAR ESKOLA ZUBEROAN

Herriko kultur ondarea eta funtsean nortasuna transmititzeko eskola bertan izatea oinarritzakoa dela deritzo hautetsiak. “Baina gaiari ikuspegi zabalagotik heldu behar zaio seguruenik, Xiberoa osoaren ikuspegitik, eginik diren ikerketen arabera hemendik hamar urtera edo guttiago hamar eskola izango baitira Xiberoan eta horien

Eta zer egin dezake Herriko Etxeak ikastetxea Barkoxen sostengatzeko? “Herriko Etxean egiten ditugu herriko etxe batek egiten ahal dituenak: eskolan ikasteko, irakasteko eta txikiak zaintzeko baliabideak ezarri, jende gaztea hemen geratzeko eta etxea eraikitzeko baldintzak erraztu... baina ezin ditugu herritarrak behartu haurrak egitera. Egun batez eskola ixten baldin bada, guttienez bada dantza taldea, kirol taldea, gazteen elkarteak... Horiek segituko dute”. Hala ere, ez dute etsiko: “Ahal dela eskola herrian mantentzeko borrokan jarraituko dugu, prefosta, baina Frantziako Estatuak deliberatzen badu ez dadila eskolarik egon, zaila izango da horri aurre egitea”.

LEHEN ALDIZ, DIRU-LAGUNTZA ESKOLA TXIKIEI

23 ikastetxe publiko ditu Donostiak, eta horiez gain, Gipuzkoan dauden 28 eskola txikietatik bi hiriburuan dira: Igeldon eta Zubietan. Iaz, Udalak lehenengo aldiz eskola txiki horiek diruz lagundu zituela-eta, ikastetxea herrian bertan mantentzeko udalek duten arduraz eta egin dezaketenez galdetu diogu Naiara Sampedro Donostiako Hezkuntza zinegotziari. “Eskola txikiak eta ikastetxe publikoak Eusko Jaurlaritzaren eskumena dira EAEn, eta une honetan, Udalaren eskumena eraikinen mantenua da, ez dugu beste eskumenik, baina diruz lagundu ditzakegu adibidez, eta hala egin dugu. Izan ere, landa eremuan

aurkitzen diren eskola txikiak gabezia handiagok izan ohi dituzte, hiri batekin konparatuta baliabide eta zerbitzu gutxiago dituztelako, eta espresuki lagundu behar ditugu administrazioetik, baina orain arteko politikek globalizaziorantz eta neutraltasunerantz jo dute, herri eta auzo txikiak diskriminatuz. Horri aurre egiteko, lehen aldiz Donostiaren historian iaz Udalak diru-laguntza zuzena eman zien Zubietan eta Igeldoko eskola txikietako guraso elkartei, guraso elkarteak direlako eskola txikien benetako bultzatzaileak. Aipatu baliabide eta zerbitzuak betetzen laguntzen du horrek, zaintza zerbitzua bermatzeko eta eskolaz kanpoko jarduerak babesteko, adibidez. Helburua da ikasle guztiek aukera berak izatea eta politika orekatzaileak bideratu behar dira, auzogune naturalean hezteko eskubidea bermatu behar dugulako instituzioetatik. Igeldon 61 haur daude une honetan eta Zubietan 47. Iaz, baita aurten ere, Igeldok 3.691 euroko diru-laguntza jaso du eta Zubietan zertxobait gutxiago, Usurbilgo Udalak ere babesten duelako. Ordainetan, Udaletik eskolari eskatzen zaiena da komunitate osoa kontuan hartzea eta eskola politika integraztailea burutzea”.

AUZOGUNE NATURELEAN HEZTEKO ESKUBIDEA

Argi du Sampedrok, ikasleek beren ingurumen naturalean hezteko aukera izan behar dute, eta eskubide hori bermatu behar die administrazio publikoak. “Eskola txikiak berezko ezaugarriak dituzte –gehienbat euskaldunak eta kalitatezko eskolak izaten dira– eta gizarte ikuspegi zeharo garrantzitsua dute: herriarekiko eta naturarekiko harreman estua garatzen laguntzen dute eta herriko eta auzoguneko dinamikan inplikatzen laguntzen dute. Herriari eta auzoari bizipoza ematen diote. Asko gustatzen zaidan esaldiarekin laburbilduko nuke: herri baten altxorra, bertan bizi diren pertsonak dira eta horien artean altxor handiena umeak dira”. Azken finean, bi norabidetako hartu-emanak da eta eskolak dinamiko bihurtzen

du herria, baita ekonomikoki ere, haurrak bertan izateak sortzen duen jarduerak eraginda. Gurasoak beraiek errazago inplikatzen dira eskolan, bertan egonik. “Auzo-komunitateaz mintzo garenean –dio Hezkuntza zinegotziak– epizentrotan eskola dago. Azken batean eskolak, ikasleak hartzearekin batera haien familiak ere hartzen ditu, izan gurasoak, aitona-amonak, izeba-osabak, lagunak...”. Eta noski, eskola epizentroa bada, administrazioak ezinbestekoa du harekin harremana: “Donostiako Udala organo gorenetakoa kide da eta saiatzen gara zuzendaritzatik eta eskoletatik jasotzen dugun ahalik eta informazio eta behar gehien kontuan hartzen; gure eskumena bada betetzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren eskumena bada, haiei helarazi eta eskaera egiteko”.

Pierre Pinquek zioen moduan, umeak alde batetik bestera ez ibili behareren abantaila ere azpimarratu du Naiara Sampedrok: “Hirian bertan ia-ia auzo guztietan daude eskolak, eta landa eremuetan, gure kasuan Zubietan eta Igeldon, eskerrak eskola txikiak bermatuta dauden, bestela kilometro pila bat egin beharko lituzketelako haur txiki hauek egunero, eskolara joan-etorria egiteko”.

Donostiako Udalak eskola txikiak erantzukizuna eta konpromisoa duela dio Sampedrok, bereziki Zubietakoaren egoera larria ikusita. 2005ean jaiotze-tasa asko hazten hasi zen Zubietan, eta 2010ean bi eraikin aurrefabrikatu jarri zituzten (horietako bat jangela da), baina eskola handitzeko beharra agertu dute zuzendaritzak eta guraso elkarteak. “Pentsa, egun 16 haur daude aurrefabrikatu txiki-txiki batean sartuta, obretan erabiltzen diren modukoan, eta hurrengo urterako 20 haur aurrekusten dira. Eusko Jaurlaritzak esku hartzea beharrezkoa da, nahiz eta badakigun ematen ari den murrizketa politikarekin ez direla prest egongo eraikina zabaltzeko. Horregatik, eskoletara bideratzen diren inbertsioetan aurten Zubietako eskola txikiari lehentasuna ematea da gure asmoa”. ■



 **argia**

*Astero
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia*

Jada 58.000* gara.

